

CANVAS EREDUA: READEASE
<https://readease.cms.webnode.es>



AURKIBIDEA:

1. IDEIA _____	2.or
2.BALIOA _____	3.or
3. SEGMENTAZIOA _____	4.or
4. ELKARTEAK _____	5.or
5. IRABAZI ITURRIAK _____	6.or
6.KANALAK _____	7.or
7.HARREMANAK _____	8.or
8.BALIABIDEAK _____	9.or
9.JARDUERAK _____	10.or
10.KOSTUAK _____	11.or

8. BALIABIDEAK

Baliabideak honela sailkatzen dira:

➤ **Baliabide fisikoak:** Hauetan grabaziorako edo ediziorako beharrezkoak izango ditugunak hartzen dute parte: alokairua, mikrofonoa, programa desberdinak...

➤ **Baliabide intelektualak:** Hauetan gure patentea eta egile eskubideak hartzen dute parte. Gure ideia patentatzea nahiko genuke, eta beraz, horretarako baliabideak beharko ditugu.

➤ **Giza-baliabideak:** Hauetan gure sormena eta ezagutzak hartzen dute parte. Bizi esperientziaz baliatu gara ideia bururatzeko eta ondoren, sormena zein ezagutzaz baliaturik ideia garatuko dugu.



➤ **Finantza-baliabideak:** Hasiera batean norberak bere dirutik jarri behar duen arren, aurrerantza begira, enpresa bezala izendatuta, mailegu eta kredituen eskaeran pentsatu dugu finantziaziorako.

Proiektu baten garapenerako kontuan hartu beharreko hainbat funtsezko baliabide bereizten dira eta horietatik gure kasuan hauek lirateke:

➤ **Externalizazioa:** Argitaletxeek beren liburuak utziko gintuzkete gure zerbitzua gehitzeko argitaletxetan. Alegia, beraiena den produktua (gure funtsezko baliabidea, beraz, balio erantsia izango du eskainitako zerbitzuak) eskaintzen digute, ostean, gure zerbitzua hobetze aldera.



➤ **Kostuak murriztea:** Hastapenetan gure dirutik jarri beharko dugu baliabide fisikoak lortzeko; kostuak handituko lituzkeen arren, beste enpresa batzuekin eraturako aliantza horiek gutxitzeko egingo lirateke. Behin gure zerbitzua ospetsuagoa egiten dela, kostuak handitzen badira ere, aurre egiteko izango ditugun baliabide ekonomikoak handiagoak izanda, kostua murriztu egingo litzateke.

➤ **Hobetzeko aukera:** Gure enpresan asko baloratuko da baliabide egokiak erabiltzea egunetik egunera hobekuntza izateko, funtsean, perfektionatzeko eta garapenerako gaitasuna izatea.



➤ **Iraunkortasuna:** Lehenik eta behin enpresaren arrakasta baloratu beharko dugu, ondoren, hobekuntzak egingo genituzke, enpresak iraunkortasuna lortzeko:

- Audioliburuak, ahotsak desberdinak izango dira (genero aldetik adibidez) eta noski, sorterrikoak.
- “Chat”-a, 24 orduz egongo da erabilgarri.

Gero eta handiago egiten doan bitartean, zerbitzua eta iraunkortasuna hobekuntza izango dira.

LABURBILDUZ:

- **Baliabide** fisikoak, intelektualak, finantzazkoak eta giza-baliabideak egunetik egunera **hobetuko** dira **iraunkortasuna bermatzeko**.

